



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GASTEIZ UDALERRIKO OPOR-JARDUEREN ESKAINTZARI BURUZKO AZTERLAN DIAGNOSTIKOA, 2023

IKERKETA KUANTITATIBOA

AZTIKER IKERGUNEA
www.aztiker.eus

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA OHARRAK	3
3. EMAITZAK.....	7
3.1. JARDUEREN DATU OROKORRAK	7
3.2. JARDUEREN HELBURU NAGUSIAK ETA HELBURU PEDAGOGIKOAK	14
3.3. MATRIKULAZIOA (SARBIDEA, PREZIOA)	16
3.4. JARDUERAREN IRAUPENA, EGUTEGIA, ORDUTEGIA	23
3.5. JARDUERAK ESKAINTZEN DITUEN APARTEKO ZERBITZUAK	27
3.6. BEGIRALEAK	31
3.7. HIZKUNTZA ETA EUSKARA.....	33
3.8. JARDUERETAKO PARTAIDEEN DATUAK	36
3.9. GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA JARDUERETAN	39
3.10. BEHAR BEREZIAK DITUZTEN PARTAIDEAK.....	41
3.11. JARDUERAREN AURREKONTUA ETA DIRU LAGUNTZAK	43
4. ONDORIOAK	46
ERANSKINA: Azken aipamenak	53

1. SARRERA

Txosten honetan Aztiker Soziologia Ikerguneak Gasteizko Udal Hezkuntza Zerbitzuarentzat egindako ikerketaren emaitzak aurkezten dira. Diagnostiko honen bidez aztertu da zein den hirian haur eta nerabeei bideratuta dagoen opor-jardueren eskaintza, eta nola ezaugarritzen den eskaintza hau. Zehazki, azterketak 2023ko udako oporraldian 4-20 urte bitarteko adin tartean eskaintzen diren jardueri erreparatu die.

Datozen orriotan aurkezten diren datuak metodologia desberdinez osatutako datu-bilketa baten emaitzak dira, eta hiru ikerketa-helburu nagusiri erantzuten die:

1. Vitoria-Gasteiz udalerriko opor-jardueren egungo eskaintza ezagutzea, 4-20 urte bitarteko adin tartean, 2023ko udako oporraldian.
2. Vitoria-Gasteizen opor-jardueren antolakuntzan eta kudeaketan inplikaturik dauden eragileak identifikatzea.
3. Vitoria-Gasteiz udalerriko opor-jardueren eskaintza gizarte-kohesioaren ikuspegitik aztertzea eta zentzu honetan eskaintza hobetzeko proposamenak egitea.

Azkenik, honakoak dira txostenean lantzen diren atal nagusiak:

- Metodologia: ikerketaren diseinuaren, datu bilketaren, landa lanaren eta datuen ustiaketaren ezaugarri nagusiak.
- Diagnostikoaren emaitzak.
- Diagnostikoaren ondorio nagusiak.

2. METODOLOGIA OHARRAK

Atal honetan azaltzen da opor-jardueren diagnostikoa osatzeko jarraitutako metodologia. Jarraian deskribatzen diren ekintzak bi helburu nagusirekin planteatu dira: alde batetik, 2023ko udan Gasteizen opor-jarduerak antolatzen dituzten eragileak identifikatzea, eta beste aldetik, zerrendatutako opor-jardueren inguruan ahalik eta informazio gehien biltzea.

Nahiz eta fase desberdinez osatutako prozesu bezala deskribatu, aipatu behar da **opor-jardueren diagnostikoa osatzeko datu-iturri eta metodologia desberdinak aldi berean uztartu direla**. Hau da, jardueren datuak eskuratzeko hainbat kanal ireki dira, eta horietatik jasotako informazioa ordenatzen joan gara opor-jardueren datu basearen edukia osatzeko.

1. ERAGILEEN DATU BASEAREN SORRERA:

Lehenengo pausoa eragileen hasierako zerrenda osatzea izan da. Horretarako hiru iturri nagusi erabili dira:

1. Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituzten eragileen zerrenda, 2021. urtean Aztikerrek "Gasteizko Euskara Zerbitzua: eskolaz kanpoko aisialdiaren azterketa" izeneko ikerketaren datu basea berreskuratuz.
2. Gasteizko Udalaren Hezkuntza Zerbitzuko arduradunek Aztikerri emandako zerrendak eta kontaktuak.
3. Galdetegi irekia, Aztikerreko Gasteizko panela baliatuta (1.koadroa):

1. koadroa

Unibertsoa: Aztikerreko Gasteizko panela osatzen duten herritarrak.

Landa lana: 2023ko martxoaren 30 eta apirilaren 16 bitarte.

Lagina: 126 inkesta.

Galdetegiaren bidez jasota informazioa:

- Inkestatuaren auzoa.
- Inkestatuaren seme-alaba kopurua.
- Seme-alaben jaioturtea eta generoa.
- Seme-alabek 2022ko udaran egindako opor-jarduera(k) eta tokia. (Jarduera-mota eta antolatzailea/lekua).
- Seme-alabek 2023ko udaran planeatutako opor-jarduera(k) eta tokia. (Jarduera-mota eta antolatzailea/lekua).
- Iruzkinetarako galdera irekia.

Aipatutako informazio iturriak baliatuta, eragileen lehenengo zerrenda bat sortu da, 388 erreferentziaz osatuta. Ondoren, zerrenda hori abiapuntu bezala hartu da, ekintzen inguruan datuak eskuratu ahala eragile desberdinen egoera argitzeko. Hauek dira lehenengo zerrenda honetan identifikatutako kasuistakak:

- 2023ko udaran opor jarduera bat edo gehiago antolatu duten eragileak.
- 2023ko udaran seguru opor-jarduerarik antolatu ez duten eragileak.
- Ikasleen Guraso Elkarteak eta Ikastetxeak. Hainbat kasutan bi eragile bezala zerrendatuta zeudela identifikatuz gero, antolatzaileen datu basean zentro bakoitzeko opor-jarduerak antolatzeaz arduraduna bakarrik utzi da.
- Dagoeneko itxita edo jarduerarik gabe dauden eragileak.
- Azpi-kontratitzen diren enpresak. Kasu batzuetan enpresa edo elkarte bat kontratatzen da opor-jarduerak kudeatzeko. Enpresa horiek eragileen datu basetik atera dira; izan ere, ez dira eragile bezala sailkatu, baizik eta ekintzen "arduradun" bezala.

2. JARDUEREN DATU BASEAREN SORRERA:

Eragileen zerrenda osatzeko prozesuan, enpresa edo erakunde bakoitzak antolatutako ekintzak identifikatu eta zerrendatu dira. Horrela, bigarren fase honetan, zerrendatutako opor-jardueren datu zehatzak eskuratzea izan da helburua, eta horretarako kanal desberdinak erabili dira.

Garrantzitsua da aipatzea jarraian deskribatutako prozesuan bi datu mota desberdin eskuratu direla. Horrela, lehenengo bi ekintzen bidez opor-jardueren eskaintzari buruzko informazioa bildu da eta, hirugarren pauso bezala, behin jarduerak martxan jarrita (edo bukatuta), partaidetza datu errealean gaineko informazioa eskuratu da.

1. Eragileei galdetegia: Enpresa eta elkarten kontaktu publikoak eskuratu dira Interneten, eta horiei galdetegi bat luzatu zaie. Galdetegia bi helbururekin zabaldu da: lehenengoa, konfirmatzea enpresa edo erakunde bakoitzak 2023ko udarako opor-jardueren bat antolatzeko asmoa, eta bigarrena, eragileen aldetik jardueren inguruan informazio euskarriak eskuratzea.

2. koadroa

Unibertsoa: 200 helbide elektronikoko publiko

Landa lana: 2023ko maiatzaren 11 eta 30 bitarte.

Lagina: 44 inkesta.

Galdetegia:

Galdetegiaren bidez enpresei/erakundeei opor-jardueren inguruan abiatutako diagnostikoaren berri eman zaie, eta prozesuan eragileen kolaborazioa eskatuko zitzaiela azaldu zaie. Horretaz gain, galderen bidez jasota informazioa:

- 2023ko udan, enpresak/erakundeak 2 eta 20 urte bitarteko herritarrentzako opor-jardueren bat antolatzeko asmoa (bai/ez).
- Jardueren kokapen nagusia (auzoa).
- Udako eskaintzaren inguruko informazioa Interneten eskura edukiz gero, webgunearen lotura.
- Enpresa edo erakundearen arduradunaren izena, e-posta eta telefonoa.

2. Eskaintzaren azterketa sarean: lehenengo fasean zerrendatutako eragileen eta ekintzen izena hartuta, baita galdetegiaren bidez lortutako loturak baliatuz ere, Interneten datu bilketa bat abiatu da. Zehazki, eragileen webguneak, sare sozialak, eta bestelako komunikazio euskarriak kontsultatu dira bertan udako eskaintzaren inguruan zeukaten informazioa biltzeko.
3. Eragileekin kontrastea: osatutako eragileen datu-basea baliatuz, opor-jarduerak antolatzen dituzten enpresa eta erakunde desberdinei jardueren inguruko informazioa partaidetza datu errealekin osatzea eskatu zaie. Horretarako, eragile bakoitzarekin emailaz kontaktatu da, jardueren inguruko informazioa osatzeko fitxa bat luzatuz. Partaide errealen inguruko datuak eskatzeaz gain, bidalitako fitxaren bitartez jardueren antolaketari buruz beste datu batzuk eskatu dira.

Honakoa da fitxaren edukia:

- Partaide kopuru erreala.
- Partaideen antolaketa. Txanden erabilera.
- Plaza kopurua eta eskaera kopurua.
- Partaideen banaketa generoari dagokionez.
- Partaideen banaketa adinari dagokionez.
- Hezkuntza premia berezirik duten partaideak.
- Mugikortasun murriztua duten partaideak.
- Begiraleen ratioa.
- Kontratazio mota.
- Jardueraren aurrekontu totala, eta partaideen kuota edo izen-emateekin aurrekontuaren osatzen denaren ehunekoa.
- Dirulaguntza publikoen presentzia.
- Jardueraren helburu orokorrak.
- Jardueraren helburu pedagogikoak.
- Euskara sustatzeko/bermatzeko hartutako neurriak.
- Eragileen iruzkinak, bestelako aukera edo beharren inguruan.

Kontrasterako fitxa opor-jardueren antolatzailerak diren eragileei bidali zaie, kanpoko eragileei izan ezik. Datu-bilketaren bidez Gasteiztik kanpo kokatutako eragileak identifikatu dira, eta kasu honetan, bakarrik eskaintzaren azterketarako kontuan hartu dira.

Fitxen betetze-prozesuari dagokionez, enpresa edo erakunde desberdinei jardueren fitxa bidali ondoren, Aztikerreko teknikari bat telefonoz bakoitzarekin jarri da harremanetan, eta prozesuaren inguruko zalantzak argitu eta azalpen guztiak eman ditu. Eragileen kontrastea, telefonikoa zein e-posta elektronikoaren bidezkoa, opor-jardueren hasierekin batera abiatu zen, eta iraila arte luzatu da.

Laburpen moduan, deskribatutako metodologiaren datu kuantitatiboak hurrengo koadroetan (3. eta 4 koadroa) biltzen dira:

3. koadroa

	Eragile kopurua	Deskribapena
Hasierako datu basea	368	Eragileen maparako datu-iturri desberdinak baliatu ondoren, sortutako lehenengo zerrenda da. Bertan, 2023ko udaran opor-jarduerarik antolatzeke aukera zuten eragileak agertzen ziren. Hezkuntza eremukoak edo ekintza sozialaren munduan diharduten eragileak dira gehienbat.
2023ko udan opor-jardueraren bat antolatu dute.	109	Datu-bilketaren bidez, konfirmatu da eragile hauek opor-jardueraren bat antolatu dutela. Horietatik, 33 eragilek osatu dute euren fitxa. Horiek dira datu basearen 56 jardueren antolatzailerak.
2023ko udan ez dute opor-jarduerarik antolatu.	95	Datu-bilketaren bidez, konfirmatu da eragile hauek ez dutela opor-jarduerarik antolatu. Kasu batzuetan, opor-jardueraren bat eskaini zen, baina geroago arrazoi desberdinengatik bertan behera gelditu ziren.
Zehaztu gabeko eragileak	164	Eragile potentziala izanik (hezkuntza/aisialdiaren eremukoa), datu bilketaren bidez, ez da zehaztu opor-jarduerarik antolatu duten. Hauez gain, azpikontrata bidez funtzionatzen duten 7 enpresa sartu dira multzo honetan eta baita eragile bat opor-jarduera antolatu duena baina bere informazioa ikerketa amaitu ondoren jaso dena.

4. koadroa

	Jarduera kopurua	Deskribapena
Eskaintzaren azterketa	168	Datu-bilketaren bidez identifikatutako opor-jarduerak. Jarduera bakoitzeko eskaintzaren inguruko datu nagusiak bildu dira.
Ekintzen partaidetza datu errealak	56	Eragileekin harreman zuzena egitea lortu den kasuetan, fitxaren bidez, ekintza bakoitzeko partaidetza datu errealak bildu dira.

3. EMAITZAK

3.1. JARDUEREN DATU OROKORRAK

2023ko udan haur eta nerabeentzat jarduerak antolatu dituzten 109 eragileren informazioa jasotzen da emaitza hauetan. 109 eragile hauek guztira 168 jarduera antolatu dituzte, hau da, batez beste 1,6 jarduera antolatu ditu eragile bakoitzak. Hala ere, batezbesteko hori hiruzpalau eragilek handitzen dute, hauek izan baitira jarduera kopuru handiena antolatu dutenak: Fundación Estadio (12 jarduera), Asociación Cultural Indar (7), Zirimola (6) edota 5+11 Fundazioa (5). Beste muturrean, eragileen gehiengo handi batek (% 79) jarduera bakarra antolatu du 2023ko udan.

Opor-jardueren eragile antolatzaileen sailkapena eginez gero (1.taula), ikus daiteke eragileen % 77,1 pribatuak direla (hauetatik % 33,9 irabazi asmoak dituzten enpresa edo akademiak; % 33,9 irabazi asmorik gabeko klub edo elkarteak eta % 9,2 itunpeko edo pribatuak diren ikastetxeak). Eragile hauek antolatu dituzte 2023ko udako opor-jardueren % 79,8. Hau da, opor-jardueren kopurua aztertuta, eragile pribatuak dira eragileen gehiengoa eta baita jardueren gehiengoa antolatu dituztenak.



Aldiz, gero aztertuko den bezala, parte hartzaile kopurua askoz ere altuagoa da erakunde publikoen jardueretan. Ez da erraza partaide kopuru errearen zifra zehatzak ateratzea, baina 56 opor-jardueren zenbakiak eskuan izanda, kalkulatzeko da eragile publikoek antolatuko jardueren partaide kopuru totalaren % 50 inguru jaso dutela. Hau da, opor-jardueren % 12,5 antolatu dituzte erakunde publikoek eta hauetan haur eta nerabeen erdiek parte hartu dute. Hauen artean daude Gasteizko Udala 11 jarduerekin (bertan sartzen dira Herriarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saila; Hezkuntza Zerbitzua; Gazteria Zerbitzua; Kirol Zerbitzua eta Folklore Eskola), Arabako Foru Aldundia bi jarduerekin eta bestelako erakunde publikoak 8 jarduerekin (Arabako Mendialdeko Kuadrilla, Artium Museoa eta abar).

Sailkapenarekin amaitzeko, 13 Guraso Elkartek opor-jarduerak antolatu dituztela jaso da ikerketan. Kasu honetan, Guraso Elkarte bakoitzak jarduera bakarra antolatu du.

1.Taula. 2023ko udan opor-jarduerak antolatu dituzten eragileen sailkapena. Eragile kopurua eta jarduera kopurua

	Eragile kopurua		Jarduera kopurua	
	Maiztasuna	Ehunekoak (%)	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Eragile pribatua	84	77,1	134	79,8
Eragile pribatua, irabazi asmoekin	37	33,9	61	36,3
Eragile pribatua, irabazi asmorik gabe	37	33,9	56	33,3
Ikastetxe itunpeko / pribatua	10	9,2	17	10,1
Eragile publikoa	12	11,0	21	12,5
Gasteizko Udalaren sailak	5	4,6	11	6,5
Arabako Foru Aldundia	1	0,9	2	1,2
Beste erakunde publikoak	6	5,5	8	4,8
Guraso Elkartea	13	11,9	13	7,7
IGE publikoa	9	8,3	9	5,4
IGE itunpeko / pribatua	4	3,7	4	2,4
Guztira	109	100,0	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

1.1 Grafikoa. Eragile kopurua**1.2 Grafikoa. Jarduera kopurua**


Jarduerak eremuen edo motaren arabera aztertuz gero, hamarretik hiru (51 jarduera; guztien % 30,4) aisialdiari lotutakoak dira, multzo honetan sartuko lirateke udalekuak eta jolas txokoak orokorrean. Bestetik, kirol jarduerak ekintza guztien % 20,2 osatzen dute eta bertan sartzen dira edozein kirol espezialitate ikasteko edo hobetzeko jarduerak. Hirugarren multzo batean sar daitezke kirola eta aisialdia uztartzen dituzten jarduerak edo udako kanpusak (% 17,9). Laugarren postuan daude hizkuntzak ikasteko jarduerak (% 13,1), bereziki akademia pribatuek antolatutako ingeles udalekuek edota ikastaroei osatzen dute multzo hau. Bosgarren lekuan aurkitzen dira eremu anitzeko jarduerak, hau da, eremu ezberdin asko jorratzen dituzten jarduera eta udalekuak, esaterako, kirola, hainbat arte disziplina, tailerrak, txangoak, eta abar (% 10,7). Bukatzeko, jarduera multzo txikienak dira arte eszenikoei lotutakoak, bereziki dantzari lotuak (% 4,2); bestelako jarduera artistikoei lotuak (% 1,8) edota zientzia eta teknologiar buruzkoak (% 1,8).

2.Taula. Jarduerak, eremuen arabera sailkatuta

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aisialdia	51	30,4
Kirol Jarduera	34	20,2
Aisialdia + Kirol Jarduera	30	17,9
Hizkuntzak	22	13,1
Eremu anitzekoa	18	10,7
Arte Eszenikoak	7	4,2
Jarduera Artistikoak	3	1,8
Zientzia eta Teknologia	3	1,8
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

2.Grafikoa. Jarduerak, eremuen arabera sailkatuta



2023ko udan antolatu diren jardueren distribuzio geografikoari dagokionez, datu nagusia da Gasteizen bertan antolatzen direla jardueren bi heren (% 65,5) eta beste herena gutxi gorabehera bi multzo berdinetan banatzen dela; Gasteiztik kanpo, Arabako beste udalerrri batean egiten diren aktibitateak (% 15,5) eta Arabatik kanpo, Euskal Herriko beste herrialderen batean edota atzerrian (% 15,5).

Gasteizen bertan antolatu diren 110 jarduerak auzoaren arabera aztertzen badira, ikusiko da Mendizorrotzan kokatzen dela multzo handiena (27 jarduera). Kirol jarduera asko bertan antolatzen dira, tartean, Fundación Estadiok aurrera eramaten dituenak. Zerrendan hurrengo postuetan topatzen dira Arriaga-Lakua auzoa, Lovaina, Zabalzana eta Salburua (denak 10 eta 6 ekintza artean). Bestalde, Gasteiztik kanpo baina Arabako beste udalerrri batean antolatzen diren jarduerak (26 guztira) kasu gehienetan aisialdi edota kirolarekin lotura izaten dute eta askotan naturarekin edota landa eremuarekin harremana duten ekintzak izaten dira. Bukatzeko, Arabatik kanpo kokatzen diren jarduerak (26 guztira) udaleku itxiak izan ohi dira, hau da, iraupen luzeagokoak. Multzo honetan sar daitezke Euskal Herriko beste herrialderen batean egiten diren udalekuak edo hizkuntzak ikastera atzerria joaten direnak.


Jarduera eskainita dagoen adin-tartea eta distribuzio geografikoaren aldagaia gurutzatzen badira, argi antzematen da Arabatik kanpo egiten diren opor-jarduera eta kanpalekuak bereziki 8 urtetik gorako haurrentzat eskaintzen direla. Aldiz, Gasteiz barruan antolatzen diren jarduerak eta Araban zehar egiten direnak publiko orokorrago bati begira antolatzen dira, baita 8 urtetik azpikoentzat ere.

3.Taula. Jardueren distribuzio geografikoa


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Gasteiz barruan	110	65,5
Mendizorrotza	27	16,1
Arriaga-Lakua	10	6,0
Lovaina	7	4,2
Salburua	6	3,6
Zabalgana	6	3,6
San Martín	5	3,0
Alde Zaharra	4	2,4
El Anglo	4	2,4
Sansomendi	4	2,4
Zaramaga	4	2,4
Santa Luzia	3	1,8
Txagorritxu	3	1,8
Zabalgunea	3	1,8
Ariznabarra	3	1,8
Judimendi	2	1,2
Adurtza	1	0,6
Ali-Gobeo	1	0,6
Aranbizkarra	1	0,6
Arantzabela	1	0,6
Desamparados	1	0,6
Koroatzea	1	0,6
Pilar	1	0,6
San Kristobal	1	0,6
Gasteiz barruan hainbat auzotan	11	6,5
Gasteiztik kanpo, Araban	26	15,5
Arabatik kanpo	26	15,5
Zehaztu gabe	6	3,6
Guztira	168	98,2
Gasteiz barruan	110	65,5

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

3.Grafikoa. Jardueren distribuzio geografikoa



1.Irudia. Jardueren distribuzio geografikoa



Jardueren datu orokorrekin jarraituz, opor-jarduera bera zein espaziotan burutzen den jaso da. Jardueren erdia baino gehiago (% 54,2) eragilearen edo taldearen egoitza nagusian egiten da, hauetatik gehienak eragile pribatuak dira. Jardueren beste % 22,0 bestelako eragile batek utzitako instalazio itxietan antolatzen dira. Ekipamendu edo instalazio publikoak erabiltzen dira jardueren % 18,5ean, eta hauen barruan gutxi gorabehera erdi eta erdi banatzen dira aire libreko ekipamenduak erabiltzen dituztenak (futbol eta errugbi zelaiak, atletismo pistak eta abar) eta instalazio publiko estaliak (kiroldegia, gizarte etxeak eta abar).


Ikasleen Guraso Elkarteek edo ikastetxeek antolatutako jarduera guztiak ikastetxearen instalazioetan burutzen dira. Bestalde, irabazi asmoak dituzten eragile pribatuek antolatutako jardueren % 80,3 eragilearen beraren egoitza nagusian egiten dira eta gainerako % 19,7 beste instalazio batzuetan, kasu gehienetan instalazio publikoetan. Bukatzeko, irabazi asmorik gabeko eragile pribatuek antolatutako jardueren % 16,1 eragilearen beraren egoitza nagusian egiten dira eta gainerako % 83,9 beste instalazio batzuetan, kasu askotan instalazio publikoetan. Datu hauek adierazten dute erakunde publikoek (Gasteizko Udalak edota Arabako Foru Aldundiak) antolatzen dituzten jarduera propioez gain, bestelako eragile pribatuen jarduerak ere sostengatzen dituztela beraien instalazio publikoen erabileraren bitartez.

4.Taula. Jarduera zein espaziotan egiten den (erantzun bat baino gehiago aukeratu zitezkeen)


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Eragilearen egoitza nagusia	91	54,2
Beste eragile baten instalazioak (itxiak)	37	22,0
Ekipamendu publikoa (kanpoaldea)	16	9,5
Ekipamendu publikoa (itxia)	15	8,9
Beste eragile baten instalazioak (kanpoaldea)	5	3,0
Zehaztu gabe	11	6,5
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

4.Grafikoa. Jarduerak zein espaziotan egiten den




2.Irudia. Datu basearen opor-jardueren egoitzen kokapenak, eremuaren arabera:



Izurria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

3.Irudia. Datu basearen opor-jardueren egoitzen kokapena, eragilearen izaeraren arabera:



Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

3.2. JARDUEREN HELBURU NAGUSIAK ETA HELBURU PEDAGOGIKOAK

Inkesta bete duten eragileei eskatu zaie antolatzen duten jardueraren helburu nagusiak eta helburu pedagogikoak zein diren azaltzeko. Helburu nagusiei dagokienean, hainbat ideia aipatu dira eta nolabait multzokatzen dira txosten honetan:

Jardueren ia erdietan (% 45,1) adierazi da helburu nagusia dela kirol praktika baten sustapena, ezagutza eta teknifikazioa lantzea. Kirol ezberdinen kanpus edo udalekuen kasua da hau, esate baterako, multzo honetan sartzen dira Fundación Estadiok antolatutako jarduerak, edota beste kirol klub dezenterenak. Kirolaren ezagutza eta praktika helburu nagusi duten jarduera hauetatik asko generoaren arabera desorekatuak geratu dira parte hartzaileei dagokienez, azpimarratzekoa baita kirolarekin lotutako jarduerak direla desoreka handienak sortzen dituztenak. Bukatzeko, aipatu beharra dago kasu batzuetan kirolaren praktikaz aparte, bestelako helburuak ere lantzen direla adierazi dutela eragileek, hala nola, ohitura osasuntsuak sustatzea edota laguntasuna eta talde lana bezalako baloreak transmititzea.

Jardueren helburu nagusiekin jarraituz, bestetik, eta bereziki eskaera kopuru altua izan duten jardueren kasuan, helburu bezala aipatu dituzte, batetik, balore 'onak' transmititzea (laguntasuna, talde lana, kritikotasuna, errespetua, parte hartzea eta abar) eta, bestetik, denbora librerako alternatibak eskaini, oporraldiaren zati batean esperientzia ludikoa eta hezitzailea ahalbidetu, eta gurasoei kontziliazioa erraztea. Kasu hauetan, astean ordu askoko aktibitateak izan ohi dira, aisialdiarekin lotutakoak eta, esan bezala, gurasoen partetik eskaera kopuru altua dutenak. Izan ere, izen emate kopuru altuak izan dituzte jarduera hauek eta gehienak zozketa bidez egin dira partaideen aukeraketa. Kirol jarduerak sustatzea helburu nagusi duten jarduerekin alderatuta, hauek parte hartzaileen genero aldetik orekatuak izan dira kasurik gehienez.

Zerrendatu diren beste helburuen artean, naturarekin harremana egitea eta ingurunearen ezagutza bultzatzea ere agertzen da % 10en kasuan. Multzo honetako jarduera guztiak kanpaleku itxiak dira eta Gasteiztik kanpo egiten dira. Bestalde, hizkuntza eta kultura batean murgiltzea helburu nagusi duten aktibitateak ere % 10 inguru dira eta gehienak ingeleseko jardura eta kanpalekuei lotuta daude. Bukatzeko, gutxiago aipatu diren beste helburu batzuk ondorengoak dira: kluba edo elkarteak ezagutaraztea nerabeen artean; adin beretsuko jendea ezagutu eta lagun berriak egitea; sortzen eta espresatzen ikastea artearen bidez; edota euskara modu dibertigarriago batean erabiltzea, eskolatik kanpo.

Helburu pedagogikoen atalean asko aipatu dira sozializazioarekin eta balore 'positiboekin' lotutako ideiak. Esate baterako, gauzak eta ekintzak elkar banatzen ikastea, lankidetzak, kulturartekotasuna eta kolaborazioa jardueren % 35 inguruk aipatu du. Multzo honetan sartu dira erabat estilo ezberdinetako jarduerak; alde batetik, kirolari lotutakoak eta Fundación Estadiok antolatutakoak eta, bestetik, Gasteizko Udalak antolatutako partaide kopuru altuko jarduerak.

Era berean, helburu pedagogiko bezala agertu da kasu askotan adin beretsuko jendea ezagutu eta sozializatzea (% 25 inguru) edo balore 'onak' transmititzea (laguntasuna, talde lana, kritikotasuna, errespetua, parte hartzea eta abar) beste % 20 ingururekin. Aipatu diren bestelako helburu

pedagogikoen artean asko agertu da kirol edo praktika baten sustapena, ezagutza, teknifikazioa (jardueren % 20ak aipatu du). Kirol jarduera horien antolatzaileek, denak dira Gasteizko klub pribatuak, helburu nagusi eta helburu pedagogiko berdinak aipatu dituzte.

Bukatzeko, adierazi diren bestelako helburu pedagogikoen artean daude disfrutatzea eta ongi pasatzea, aisialdia era osasungarri eta dibertigarrian egiten ikastea, autonomia pertsonala garatzea, ingurunearekiko erantzukizuna lantzea, garapen kognitiboa bultzatzea (memoria, hausnarketa, sormena...) edota puntualitatea, disziplina edota monitoreei errespetua bezalako baloreak.

3.3. MATRIKULAZIOA (SARBIDEA, PREZIOA)


Jaso diren 168 opor-jardueren inguruko informazioaren arabera, gehiengo batean (% 70,8) izen ematea librea da, hau da, ez da izan beharrik erakunde edo eskola bateko ikasle edo bazkide aktibitatean parte hartzeko. Hala ere, badaude kasu gutxi batzuk talde edo klub bateko bazkideek soilik izen eman dezaketena (jardueren % 4,8), esaterako mendi talde bat edo dantza talde bat. Beste kasu batzuetan (% 4,2) jarduera Ikasleen Gurasoen Elkarte (IGE) batek edo ikastetxe pribatu / itunpeko batek antolatu du eta soilik eskolako ikasleek eman dezakete izena. Bukatzeko, aipatzekoa da jardueren % 20,2ren kasuan ez dela zehaztu aspektu honi buruzko erantzunik.

5.Taula. Jardueran matrikulatzeko sarbidea

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Irekia	119	70,8
Erakundeko bazkideak	8	4,8
Eskolako ikasleak	7	4,2
Zehaztu gabe	34	20,2
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

5.Grafikoa. Jardueren matrikulatzeko sarbidea




Jardueretan izen emateko kanalar dagokionez, erdia baino gehiagotan (% 55,4) online bakarrik eman daiteke izena eta % 13,1ean online eta aurrez aurre, bi modutara. Soilik aurrez aurre izen eman daitekeen kasuak % 2,4 dira. Izen emateko zein kanal erabiltzen duten ez da zehaztu kasuen laurdenean (% 26,2).

6.Taula. Izen emateko kanala

	Maiztasuna	Ehuneko (%)
Online	93	55,4
Aurrez-aurre zein online	22	13,1
Aurrez-aurre	4	2,4
Besterik	5	3,0
Zehaztu gabe	44	26,2
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

6.Grafikoa. Izen emateko kanala




Izen ematearen tipologia edo sistema nolakoa den aztertuta, ia opor-jardueren erdiak ez du informazio hau adierazi (% 45,2). Informazio bat ematen dutenen kasuan, bi sistema nagusitzen dira; batetik, plaza kopurua bete arte izen ematea irekita mantentzen dutenak (% 22,0) eta, bestetik, izen emateko epea bukatzen denean, hautagai guztien artean zozketa egiten dutenak (% 19,0). Zozketa sistema erabili ohi da izen emate kopuru altuak dituzten jardueretan, esaterako, Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak edota bestelako erakunde publikoren batek antolatutako jardueretan. Baita Fundación Estadiok antolatzen dituen opor-jardueretan ere, nahiz eta beraien jardura gehienetan ez den inor plazarik gabe geratu. Bukatzeko, eragileek erabiltzen dituzten beste bi sistema ere jaso dira, izen emate mugarik ez dagoen tipologia (% 10,1) eta puntuazio sistema propio bat erabiltzen dutenena (% 3,6).

7.Taula. Izen ematearen tipologia

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bete arte	37	22,0
Zozketa	32	19,0
Mugarik gabe	17	10,1
Puntuazio sistema	6	3,6
Zehaztu gabe	76	45,2
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

7.Grafikoa. Izen ematearen tipologia




Taldeak edo txandak egiteko irizpidea zein den aztertuta, jarduera gehienetan haur edo nerabeen adina izaten da aldagai nagusia (% 69,6), hau da, txandak antolatzen dira adin taldeen arabera. Hala ere, badaude zenbait aktibitate taldeen banaketa ezagutzaren edo mailaren arabera egiten dutenak (% 11,3). Irizpide hau aplikatzen da bereziki hizkuntza akademietan edota kirol jarduera batzuetan (igeriketa, gimnasia...) eta kasu guztietan eragile pribatuak izaten dira.

8.Taula. Taldeak egiteko irizpidea zein izan den

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Adina	117	69,6
Maila/ezagutza	19	11,3
Partaide kopurua	3	1,8
Hizkuntza	2	1,2
Zehaztu gabe	27	16,1
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

8.Grafikoa. Taldeak egiteko irizpidea



Jarduera egiteko ordaindu beharreko prezioari dagokionean, nolabait estandarizatzeko, aktibitatearen asteko prezioa jarri da erreferentzia moduan. Kopuruak asko aldatzen dira ekintza batetik bestera, bereziki asteko ordu kopuruaren arabera. Hau da, normalki ordu kopuru txikia duten jarduerak prezio merkeagoa izan ohi dute eta aste osoko udaleku itxiek garestiagoa.

Datu zehatzetan sartuta, jardueren % 1,8 doan direla adierazi dute eragileek. Jarduera hauen antolatzaileak Artium Museoa, Club de Natación Zadorra eta Cruz Roja Juventud dira eta sarbidea irekia dago 5-14 urte arteko edozein herritarrentzat. Hortaz, opor-jardueren % 98,2 ordainpekoak direla esan daiteke. Bestalde, jardueren % 9,5ek 50 euro baino gutxiago balio dute asteko. Hauen artean kokatzen dira eguneko ordubete edo ordu t'erdi irauten duten kirol jarduerak, gehienak Fundación Estadiok antolatuak eta kasu askotan partaideen aldetik generoaren araberako arrakala sortzen dutenak, gizonetakoak gehiago baitira partaideen artean.

Sailkapenarekin jarraituz, esan beharra dago jardueren erdiak (% 51,2) 50 eta 150 euro arteko prezioan kokatzen direla, gehienak goizez bakarrik izaten diren jarduerak dira, eguneko 3-5 ordu artean irauten dutenak. Ordu kopuruaren arabera merkeago edo garestiago izan ohi dira. Bestalde, jardueren % 8,9k 150 eta 200 euro artean balio du eta gainerako % 15,5ek 200 euro baino gehiago. Azken multzo honetan sartzen dira Gasteiz edo Arabatik kanpo egiten diren jarduerak, normalean udaleku itxiak eta asteko 2.000 euro izatera ere irits daitezkeenak atzerrian hizkuntza bat ikasten dutenen kasuan.


Prezioaren datuekin amaitzeko, jarduera guztien batezbestekoa asteko 194 euro ingurukoa dela kalkulatzen da. Atzerrian egiten diren udalekuak kalkulutik atera ezker, media hori 150 euro ingurura jaitsiko litzateke. Hala ere, eragile motaren arabera aztertuz gero, ezberdintasun handia antzeman daiteke jardueraren prezioan. Erakunde publikoek, itunpeko ikastetxeek edota Ikasleen Guraso Elkarteek antolatzen dituzten jarduerak batez beste 90-110 euro inguruko prezioa dute asteko. Aldiz, eragile pribatuek antolatzen dituzten aktibitateen prezioa asteko 170 eurora igotzen da (215 eurora igotzen da media atzerrian ingelesa ikasteko bi udalekuak kalkuluan sartzen badira).

9.Taula. Jardueraren prezioa, asteko

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Doan	3	1,8
50 euro baino gutxiago	16	9,5
50 eta 99 euro artean	48	28,6
100 eta 149 euro artean	38	22,6
150 eta 199 euro artean	15	8,9
200 euro edo gehiago	26	15,5
Zehaztu gabe	22	13,1
Guztira	168	100,0
Batezbesteko prezioa asteko (€)		194

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

9.Grafikoa. Jardueraren prezioa, asteko



Izen emateko matrikuletan opor-jardueren hamarretik lautan (% 43,5) ez da inolako deskonturik aplikatzen edota ez da zehazten deskonturik dagoen ala ez. Gainerako aktibitateen kasuan, aplikatzen diren deskontuak hainbat motatakoak izan daitezke. Jardueren laurdenak (% 25,0) deskontua egin ohi du izen emandako egun kopuruaren arabera; beste % 19,6k beren bazkideei prezio merkeagoa egiten die; % 11,3k ikasturtean zehar bertako ikasle izan direnei edota % 10,7k anai-arrebak direnen kasuan.


Deskontu gehien aplikatzen dituzten eragile antolatzaileak erakunde publikoak dira, ia aktibitate guztietan aplikatzen baitute deskonturen bat. Itunpeko ikastetxeek eta IGEek antolatutako jardueren % 70ean ere deskonturen bat aplikatzen da eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuen jardueren artean ere % 64,3k deskonturen bat du. Beste muturrean, irabazi asmoak dituzten eragile pribatuen ekintzetan askoz ere gutxiago dira aplikatzen diren deskontuak, soilik jardueren % 31,1ean. Hau da, irabazi asmoak dituzten eragile pribatuen jardueren gehiengo batek ez du inolako deskontu aukerarik proposatzen.

10.Taula. Deskontuak (erantzun bat baino gehiago aukeratu zitezkeen)

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Egun kopurua	42	25,0
Bazkideak izateagatik	33	19,6
Ikasturteko ikasleak	19	11,3
Anai-arrebak	18	10,7
Familia ugaria	7	4,2
Kolektibo zaurgarriak	2	1,2
Deskonturik ez	23	13,7
Zehaztu gabe	50	29,8
Guztira	194	113,5

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

10.Grafikoa. Deskontuak




Atal honekin bukatzeko, opor-jardueren inguruan jaso nahi izan da ea zein adineko haur eta gaztetxoei bideratuta dauden. Datuek argi islatzen duten moduan, jarduera gehien 8 eta 12 urteko herritarrentzat bideratzen dira. Informazioa jaso den 168 jardueretatik erdia baino gehiago adin tarte horri begira antolatzen da. Agian ez da soilik 8 eta 12 urte artekoentzat antolatzen, baina adin tarte hori ere sartzen da. Bestetik, jardueren % 25 baino gehiago bideratzen dira 5 eta 7 urtekoentzat edota 13 eta 15 urte bitartekoentzat. Eta bukatzeko, aktibitate eskaintza txikiagoa jasotzen duten adin taldeak dira 16 eta 20 urte bitartekoak. Haur txikiarentzat jarduerak antolatzen dituztenak IGE-ak eta ikastetxeak izaten dira. Normalean goiz osoko ekintzak izaten dira, egunean 4-5 ordukoak eta jantoki zerbitzuarekin.

11.Taula. Jarduerak zein adineko haur eta nerabeentzat dauden antolatuta

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
20 urte	7	4,2
19	7	4,2
18	12	7,1
17	21	12,5
16	30	17,9
15	43	25,6
14	62	36,9
13	67	39,9
12	100	59,5
11	103	61,3
10	102	60,7
9	95	56,5
8	90	53,6
7	78	46,4
6	57	33,9
5	44	26,2
4	35	20,8
3	27	16,1
2	14	8,3
Zehaztu gabe	31	18,5

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

11.Grafikoa. Jarduerak zein adineko haur eta nerabeentzat daude antolatuta



3.4. JARDUERAREN IRAUPENA, EGUTEGIA, ORDUTEGIA

Hirugarren atalak jardueren denbora aspektua landu du, esate baterako, jardueren edo txanden iraupena, aktibitatearen maiztasuna, asteko ordu kopurua edota abuztuan jarduerarekin jarraitzen den ala ez.


Txandak antolatzeko denbora irizpideari dagokionez, jardueren bi herenek (% 64,9) asteka funtzionatzen du eta % 1,8k hilabeteka. Aktibitateen % 16,1ek ez du inolako irizpiderik erabiltzen, ez baita txanda ezberdinetan banatzen. Bukatzeko, jardueren % 17,5en datua ez da zehaztu galdera honetan. Bestetik, jardueraren maiztasuna, hau da, partaideak astean ekintza hau burutzen duten maiztasuna kasu gehienetan egunerokoa da (% 88,3).

12.Taula. Txandak egiteko iraupen irizpidea

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez dago txandarik	27	16,1
Asteka	109	64,9
Hilabeteka	3	1,8
Zehaztu gabe	29	17,5
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

12.Grafikoa. Txandak egiteko iraupen irizpidea



13.Taula. Jardueraren maiztasuna, partaideak astean zenbatetan joan behar diren

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Egunero	150	89,3
Astean bitan	2	1,2
Astean hirutan	1	0,6
Astean lautan	5	3,0
Zehaztu gabe	10	6,0
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

13.Grafikoa. Jardueren maiztasuna astean




Jardueraren iraupenari edo asteko ordu kopuruari dagokionez, ia hamarretik batean (15 ekintza, totalaren % 8,3) asteko 10 ordu baino gutxiago irauten du aktibitateak. Multzo honetako gehienak kirol jarduerak dira, egunean ordubete edo ordu t'erdikoak eta prezio merkeena dutenak. Bestalde, jardueren % 12,5en eskaintza 10 eta 19 ordu bitartekoa da, normalean goizeko ekintzak izan ohi dira, egunean bizpahiru ordukoak. Ondoren dator multzo handiena, jardueren % 41,1 osatzen duena, asteko 20-29 orduko aktibitateena. Hauek ere goizeko ekintzak izan ohi dira, egunero lauzpabost ordukoak. Bestetik, astean 30-39 ordu artean eskaintzen duten jarduerak totalaren % 5,4 suposatzen dute eta, bukatzeko, astean 40 ordu baino gehiago direnak ekintzen laurdena dira (% 24,4). Azken talde honetan gehiengoa dira Gasteiztik kanpo edo Arabatik kanpo egiten diren udalekuak, aste osoa kanpoan pasatzen dutenak eta prezioz garestienak direnak.

14.Taula. Jardueraren iraupena, astean zenbat ordu

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
10 ordu baino gutxiago (egunean 1-2 ordu)	14	8,3
10 eta 19 ordu bitartean (egunean 2-4 ordu)	21	12,5
20 eta 29 ordu bitartean (egunean 4-6 ordu)	69	41,1
30 eta 39 ordu bitartean (egunero 6-8 ordu)	9	5,4
40 ordu edo gehiago (egunero 8 orduetik gora, udaleku itxiak, kanpalekuak)	41	24,4
Zehaztu gabe	14	8,3
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

14.Grafikoa. Jardueren iraupena astean




Atal honekin amaitzeko, eragileen aldetik jaso nahi izan da ea jarduera hauek abuztuan zehar ere antolatzen diren. Aktibitateen hamarretik bat pasatxo (% 11,3) abuztuan ere antolatzen da eta % 82,7ren kasuan abuztuan geldialdia egiten dute. Informazio hau eman ez dutenen ehunekoa % 6,0koa izan da.

15.Taula. Abuztuan egiten al dute jarduerarik eragile hauek?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	19	11,3
Ez	139	82,7
Zehaztu gabe	10	6,0
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

15.Grafikoa. Abuztuan egiten al dute jarduerarik eragile hauek?



3.5. JARDUERAK ESKAINTZEN DITUEN APARTEKO ZERBITZUAK

Jarduerak eskaintzen dituen aktibitate propioez gain, jaso nahi izan da ea aparteko zerbitzurik eskaintzen den eragileen aldetik. Zehazki, informazioa jaso da jantoki eta zaintza zerbitzuen inguruan.


Jantoki zerbitzuari dagokionez, erdi eta erdi banatu dira zerbitzu hau eskaintzen duten jarduerak eta eskaintzen ez dutenak (% 46,4 eta % 47,0 hurrenez hurren) eta % 6,5ek ez du informazio hau adierazi. Aparteko zerbitzu hau bereziki itunpeko ikastetxeek antolatutako jardueretan eskaintzen da (% 88,2) eta baita IGEek antolatutakoetan ere (% 76,9). Aldiz, ehuneko baxuagoan eskaintzen da irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen ekintzetan (% 53,6), erakunde publikoek antolatutakoetan (% 47,6) eta, are gutxiago, irabazi asmoak dituzten enpresa pribatuek antolatutako aktibitateetan (% 21,3).

16.Taula. Jarduerak jantoki zerbitzua eskaintzen dute?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	78	46,4
Ez	79	47,0
Zehaztu gabe	11	6,5
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

16.Grafikoa. Jarduerak jantoki zerbitzua eskaintzen dute?




17.Taula. Jantoki zerbitzua eskaintzen duten jarduerak, eragile antolatzailearen arabera (%)

	Jantoki zerbitzua bai (%)
Itunpeko ikastetxeak	88,2
IGEak	76,9
Pribatua, irabazi asmorik gabe	53,6
Erakunde publikoak	47,6
Pribatua, irabazi asmoekin	21,3
Guztira	46,4

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023..

17.Grafikoa. Jantoki zerbitzua eskaintzen duten jarduerak, eragile antolatzailearen arabera (%)




Jantoki zerbitzua eskaintzen den kasuetan, aparteko prezio bat ordaindu behar izaten da eta kostu hori asteko 45 eta 65 euro artekoa izaten da, jardueraren arabera. Bestalde, gurutzatzen badira jardueraren asteko ordu kopurua eta jantoki zerbitzuaren eskaintza, bi aldagai hauen artean erlazio oso estua dagoela antzeman daiteke. Izan ere, geroz eta ordu gehiagoko aktibitatea izan, orduan eta jarduera gehiagok eskaintzen dute jantoki zerbitzua. Esaterako, astean 20 ordu baino gutxiago suposatzen duten aktibitateen kasuan, ia inork ez du eskaintzen jantoki zerbitzua. Beste muturrean, astean 30 ordu edo gehiagoko ekintzen kasuan, jarduera guztiek jantoki aukera dute.

18.Taula. Jantoki zerbitzua eskaintzen duten jarduerak, jardueraren asteko ordu kopuruaren arabera (%)

	Jantoki zerbitzua bai (%)
10 ordu baino gutxiago (egunean 1-2 ordu)	0,0
10 eta 19 ordu bitartean (egunean 2-4 ordu)	4,8
20 eta 29 ordu bitartean (egunean 4-6 ordu)	42,0
30 eta 39 ordu bitartean (egunero 6-8 ordu)	100,0
40 ordu edo gehiago (egunero 8 ordutik gora, udaleku itxiak, kanpalekuak)	100,0
Guztira	46,4

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

18.Grafikoa. Jantoki zerbitzua eskaintzen duten jarduerak, jardueraren asteko ordu kopuruaren arabera (%)




Zaintza zerbitzuaren kasuan, jardueren heren batek (% 32,7) zerbitzu hori eskaintzen dutela adierazi dute eragileek. Horien artean batzuk matrikulazio prezioaren barruan sartzen dute zaintza zerbitzua (% 7,7), guztiak eragile pribatuen ekintzetan eta ia guztiak kirol jardueri lotutako fundazioetan izan ohi dira. Besteak ordainpekoak dira (% 25,0) eta kasu askotan IGE eta ikastetxeek antolatzen dituztenak. Aldiz, jardueren gainerako bi herenetan (% 67,8) ez da zaintza zerbitzurik eskaintzen edota ez da zerbitzu honen inguruko inolako informaziorik ematen.

19.Taula. Zaintza zerbitzua

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Prezioaren barruan	13	7,7
Aparteko prezio bat	42	25,0
Ez	79	47,0
Zehaztu gabe	34	20,2
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

19.Grafikoa. Zaintza zerbitzua




3.6. BEGIRALEAK

Begirale eta monitoreei dagokienez, batez beste 9,9 partaideko begirale bat dago kontratatuta informazioa jaso dugun jardueretan. Txostenean aurrerago ikusiko den moduan, datu errealak ditugun 56 aktibitate horietan osotara kontabilizatutako partaide kopuru erreal 8.961ekoa izan bada, gutxi gorabehera 900 monitore behar izan dira jarduera guztiak aurrera eramateko. Noski, begirale asko berdinak izango dira txanda bakoitzean, beraz, ezin da ondorioztatu 900 pertsona ezberdinez ari garenik.

20.Taula. Begirale / partaide ratioa

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Begirale bat 9 partaide edo gutxiagorentzat	17	30,4
Begirale bat 10 partaideko	21	37,5
Begirale bat 11 partaide edo gehiagorentzat	13	23,2
Zehaztu gabe	5	8,9
Guztira	56	100,0
Batezbesteko ratioa (partaide / begiraleko)	9,9	

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.




Begiraleak zerbitzu enpresa baten bidez azpikontratatzeko dira jardueren ia erdian (% 46,4). Multzto honetan nabarmentzen dira erakunde publikoek antolatzen dituzten jarduerak eta baita Fundación Estadiok antolatutakoak ere. Bestalde, jardueren ia beste erdia (% 39,3) eragile edo klubaren langile propioak erabiliz antolatzen dira, beste % 3,6k langile propioak eta azpikontratatuak, biak erabiltzen ditu eta % 3,6k pertsona boluntarioak.

21.Taula. Begiraleak kontratatze modua

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Zerbitzu enpresa baten bidez azpikontratatzeko dira langileak	26	46,4
Eragile / klubaren langile propioak	22	39,3
Langile propioak eta azpikontratatuak, biak	2	3,6
Bolondresak	2	3,6
Zehaztu gabe	4	7,1
Guztira	56	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.



3.7. HIZKUNTZA ETA EUSKARA

Hizkuntzen kudeaketaren inguruko datuak ere jaso nahi izan dira ikerketa honetan, hala nola, eragileek antolatutako jarduerak zein hizkuntzetan egiten diren, euskara sustatzearekiko neurririk hartzen ote duten eta neurriak hartzen dituztenei zein motatako neurriak diren.

Opor-jardueraren hizkuntzaren inguruan, jardueren ia herena (% 30,4) euskaraz egiten dela adierazten dute eragileek. Multzo honetan nabarmentzen dira erakunde publikoek antolatzen dituzten ekintzak (Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta abar) zein IGEek antolatzen dituztenak ere, beren ekintzen % 75 inguru euskaraz eskaintzen baitituzte. Euskara hutsean antolatzen diren jardueretan haurren laurdena inguruk parte hartzen dute.

Bestalde, jarduera euskara eta gaztelaniaz antolatzen dutenak % 15,5 dira eta jarduera horietan parte hartzen dute haur eta nerabeen erdia inguruk, multzo honetan sartzen baitira partaide plaza kopuru altua duten jarduera batzuk.

Ondoren, soilik gaztelaniaz egiten duten jarduerak % 7,1 dira, baina partaideen ehuneko txikia jasotzen dute beren baitan, % 2-3 ingurukoa. Gaztelania hutsez antolatutako jarduera asko kirolaren eremuan kokatzen dira, partaide kopuru txikia dute jarduera bakoitzeko eta irabazi asmoak dituzten eragile pribatuek antolatzen dituzte.

Horrez gain, aktibitateak ingelesez diren kasuak % 10,7 dira, eta multzo honetan sartzen diren gehienak ingeles akademia pribatuak dira, hizkuntza ikasteko kanpalekuak edo kurtso intentsiboak antolatzen dituztenak. Ingelesa eta ingelesez burutzen diren jardueretan urtean zehar haur eta nerabe asko egoten dira matrikulatuta, baina udako sasoiaren nabarmentzen da ingelesezko jardueretan ez dela hainbesteko partaide kopururik izaten. Izan ere, partaide kopurua aztertuta, ingelesez burutzen diren opor-jardueretan haur eta nerabeen % 7 inguru daude matrikulatuta.


Bukatzeko, jardueren gainerako % 10,7k beste erantzun bat adierazi du eta talde honetan daude, besteak beste, hiru hizkuntzetan antolatutako ekintzak (euskara, gaztelania eta ingelesa) edota bestelako hizkuntza bat erabiltzen dutenak (japoniera, alemaniera eta abar). Aipatzekoa da gainerako jardueren % 25,6n ez dela hizkuntzaren datua zehaztu.

Azpimarratzekoa da, era berean, euskararen presentzia oso baxua dela eragile pribatuen eskaintzan. Bai irabazi asmoak dituztenen artean, baita irabazi asmorik gabekoen artean ere, haien eskaintzaren % 20 baino gutxiago baita euskaraz bakarrik eskaintzen dena.

21.Taula. Jarduera zein hizkuntzan egiten den

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara	51	30,4
Euskara eta gaztelania	26	15,5
Ingelesa	18	10,7
Gaztelania	12	7,1
Beste bat	18	10,7
Zehaztu gabe	43	25,6
Guztira	168	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

21.Grafikoa. Jardueraren hizkuntza


Euskararekin lotutako neurririk ba ote duten galdetuta, jardueren ia hamarretik zortzik (% 80,4) badutela diote eragileek eta gainerako % 19,6k ezezkoa erantzun du. Euskara sustatzeko neurririk hartzen ez dutenen gehiengoa akademia pribatuak antolatutako ekintzak dira eta beren jarduerak gaztelaniaz edo ingelesez egiten dituzte orokorrean. Erakunde publiko edota IGE guztiek adierazi dute euskara sustatzeko neurriak hartzen dituztela.

Informazio hau 56 opor-jardueraren inguruan jaso da, eragileei bidalitako fitxa baten bidez. Hortaz, datu hauetan ez da jasotzen 168 opor-jardueren inguruko emaitzarik.

22. Taula. Euskararekin lotutako neurririk ba ote duten

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	45	80,4
Ez	11	19,6
Guztira	56	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

22.Grafikoa. Euskararekin lotutako neurririk ba ote duten


Euskararekin lotutako neurriak hartzen dituztenen artean, oso maila ezberdineko praktikak antzeman daitezke. Gehien aipatu diren neurriak jardueren % 31k aipatu ditu (42tik 13k). Hauek dira, alde batetik, eragile antolatzaileak bermatzen duela begirale elebidunak kontratatuko direla, hau da, begiraleak euskaraz jakitea da jarduera horietan euskara sustatzeko neurria, eta beste aldetik, jarduera euskaraz eskaintzea, hortaz, partaideak hizkuntza menperatzea beharrezkoa dela aktibitateetan parte hartzeko. Bigarren neurri honen antzeko beste bat ere aipatzen dute kasuen % 7,1k adierazten baitute jardueraren barruan txanda edo talde batzuk euskarazko soilik eskaintzen direla. Beste praktika edo neurri sorta batek euskararen erabileraren sustapena partaideen nahiaren arabera uzten du, alegia, partaide batzuk euskara erabili nahi badute begiraleek hala egiten dute (% 11,9) edo haur euskaldunen presentziak handitzen du euskararen erabilera (% 2,4). Bukatzeko, badaude bestelako neurri batzuk ere, esaterako, orokorrean euskara erabiltzen saiatzea (% 4,8), izen ematea eta administrazioa euskaraz egiteko aukera bermatzea (% 2,4) edota material eta ekintza guztiak euskaraz prestatzea (% 2,4).

23.Grafikoa.Euskararekin lotutako neurriak zein diren

23.Taula. Euskararekin lotutako neurriak zein diren

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Begiraleek euskara menperatzen dutela bermatzen da	13	31,0
Jarduera euskaraz eskaintzen da	13	31,0
Jarduera euskara eta gaztelaniaz izaten da, haurren beharraren arabera	5	11,9
Txanda batzuk euskaraz soilik dira	3	7,1
Jarduera hirueleduna da, euskara ere sustatzen da	2	4,8
Euskara erabiltzen saiatzen dira	2	4,8
Haur euskaldunen presentziak euskararen erabilera handitu du	1	2,4
Izen ematea eta administrazioa euskaraz egiteko aukera bermatzen da	1	2,4
Material eta jarduera guztiak euskaraz prestatzen dira	1	2,4
Guztira	42	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.



3.8. JARDUERETAKO PARTAIDEEN DATUAK

2023ko udan antolatu diren jarduera batzuen inguruko parte hartze datu errealak jaso dira galdetegi bitartez. Zehazki, 56 jardueraren informazioa eskuratzeko aukera egon da. Horien artean jaso da jarduerak izan duten partaide kopurua eta sexuaren arabeko banaketa.

Partaide kopuru errealari dagokionez, oso tipologia ezberdinetako ekintzak aurki daitezke zerrendan. 56 jarduerak kontutan hartuta, 8.961 partaide kontabilizatu dira guztira. Hortaz, batez beste jarduera bakoitzak 160 partaide izan ditu, nahiz eta azpimarratu beharra dagoen media horretan eragin nabarmena izan duela partaide kopuru oso handia izan duen ekintza batek, Arabako Foru Aldundiak antolatutako Udarabak; 1.805 partaide izan baititu.


Eragile motaren arabeko partaidetza kopuruak aztertuta, ikus daiteke erakunde publikoen jardueretan egon dela parte hartzaile zifrarik altuena, batez beste 360 haur eta nerabe izan baitira. Irabazi asmorik gabeko elkarteen jarduera bakoitzeko partaide kopurua 150 ingurukoa izan da batez beste, IGEek antolatutakoetan 110 inguru izan dira eta irabazi asmoak dituzten eragile pribatuetan 60 partehartzaileko media izan dute.

Partaide kopuruaren arabera sailkatzen baitugu, jardueren % 20k 25 partaide baino gutxiago izan du, txanda edo talde guztiak kontutan hartuta. Multzo honetan sartzen dira Fundación Estadioren kirol jarduera asko, astean 10 orduetik behera dituztenak. Bestetik, 25 eta 49 partaide artean izan dituzten ekintzak ere ia laurdena osatzen dute (% 20). Ondoren datoz 50 eta 99 partaide artean izan dituztenak (% 14,5) eta 100 eta 199 partaide artean jaso dituztenak (% 20). Bukatzeko, jardueren gainerako laurdenak (% 25,5) 200 partaide baino gehiago izan dituzte. Azken multzo honetako ekintza gehienek izen emate kopuru altua izan dute eta plaza kopuru erreala ez da iritsi eskaera hori asetzera. Kasu batzuetan hain handia izan da eskaera eta eskaintzaren arteko desoreka, plaza bakoitzeko hogeitaz izen ematera iritsi baita. Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia edota Kutxabankek antolatuko hainbat jarduera sar daitezke zerrenda honetan (Udaraba, Ludoteka, Gazte Bidaiak eta abar).

24.Taula. Partaide kopuru erreala

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
25 partaide baino gutxiago	11	20,0
25 eta 49 partaide artean	11	20,0
50 eta 99 partaide artean	8	14,5
100 eta 199 partaide artean	11	20,0
200 partaide edo gehiago	14	25,5
Guztira	55	100,0
Partaide batezbestekoa jarduerako	160	

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.


24.Grafikoa. Partaide kopuru erreala

Izen emateak eta plaza kopurua aztertuta, jardueren hamarretik lauk (% 43,6) eskaintza baino eskaera kopuru altuagoa izan dute, hau da, eskaintzen ziren plazak baino jende gehiagok izen eman du. Jarduera hauetako askotan zozketaz hautatzen da partaideen sarbidea. Eta zozketa horren emaitzak asko baldintzatu ohi du udako opor jardueren antolaketa. Hainbat galdetegitan honako ideia helarazi zaigu: eskaera handiko jardueretan izena eman eta plaza tokatzen ez zaien haur eta nerabeen gurasoek beste aukera alternatiboak topatu behar izaten dituzte eta hor sartzeko jokoan klub edo akademia pribatuek antolatzen dituzten jarduerak. Hori hala baldin bada, esan daiteke, neurri batean, eragile pribatuen jardueretako partaide kopurua baldintzatuta dagoela eragile publikoek beren aktibitateetan eskaintzen dituzten plaza kopuruagatik. Eragile publikoek zenbat eta plaza gehiago eskaini, orduan eta partaide gutxiago izango dituzte klub edo akademia pribatuek, eta alderantziz.

25.Taula. Izen emate eskaera plaza kopuru erreala baino handiagoa izan da?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	24	43,6
Ez	31	56,4
Guztira	55	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

25.Grafikoa. Izen emate eskaera plaza kopuru erreala baino handiagoa izan da?

3.9. GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA JARDUERETAN

Jasotako informazioaren arabera, 2023ko udan antolatutako opor-jarduera ia bakar batean ere ez da genero bereizketarik egin eskaintzari dagokionez. Hau da, jardueraren eskaintza, printzipioz, publiko osoarentzat izan da. Salbuespen bezala, jarduera bakarrean jaso dugu emakumezkoentzat bakarrik bideratzen zela aktibitatea, zehazki, udako saskibaloia kanpus bat.

Aldiz, nahiz eta eskaintza publiko orokorarentzat bideratuta egon, genero arteko ezberdintasunak nabarmendu dira partaide kopuru errealean. Alegia, izen emate kanpainan edota baldintzetan inolako neurririk hartzen ez bada, genero arrakala sortzen da partaide kopuruari dagokionez ekintza batzuetan. Izan ere, partaide datu errealean emakume eta gizonen arteko banaketa desorekatua egon ote den galdetuta, antolatzaileen esanetan jardueren ia % 40n desoreka nabaria izan dute (% 39,3) eta beste % 55,4n parekatua izan da banaketa. Jardueren % 19,6n partaide gehienak edo guztiak emakumezkoak izan dira, eta jardueren beste % 19,6n gizonezkoek parte hartu dute nagusiki.

Desoreka gizonezkoen aldera izan den kasuen gehiengoak (11 jardueratik 6) honako ezaugarriak ditu:

- Fundación Estadiok antolatutako kirol jarduerak dira (skate, pilota, igeriketa, parkour...)
- 25 partaidetik beherakoak
- Prezioz merkeak, astean 50 eurotik behera
- Astean 10 ordu edo gutxiagokoak
- 8 eta 15 urte arteko haur eta nerabeak izan dira partaideak

Hala ere, badaude gizonezko gehiagok parte hartu duten bestelako jarduera batzuk. Hauek partaide gehiago izan dituzte, 200dik gora, eta astean ordu gehiagokoak izan dira. Bukatzeko, Gasteizko Udalak antolatutako jarduera bat ere multzo honetan sartzen da, 'Gazte-Uztaila!' hain justu. 25 plaza soilik eskaini dira eta guztira 470 izen emate izan ditu. Izen emate guztien artean zozketaz aukeratu dira partaideak eta antolatzaileen esanetan gizonezkoak gehiago izan dira aukeratuen artean.


Beste muturrean, 11 jardueretan emakumezkoak izan dira partaideen gehiengoa. Jarduera hauetatik hiru Gasteizko Udalak antolatutakoak izan dira eta bereziki izen emate kopuru handikoak izan dira (kanpamentuak Cunit-en, Ludonatura eta Udaleku Musikalak). Beste zortzi jarduerak eragile pribatuek antolatu dituzte eta hainbat eremu edo disziplinan kokatu daitezke, hala nola, kirola (aerobika, hondartzako boleibola, hipika, gimnasia, saskibaloia eta atletismoa) edota arte eszenikoak (argazkigintza esaterako).

Adin tarteari dagokionez, bereziki emakumezkoen alderako desoreka egon den aktibitateak ere 8 eta 15 urte bitartekoei eskainitakoak izan dira. Hortaz, ondoriozta daiteke partaideen generoaren arabera desorekak bereziki 8 urtetik aurrera hasten direla, ez lehenago.

26.Taula. Partaideen banaketa generoaren arabera

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Guztiak emakumezkoak	2	3,6
Gehiengoa emakumezkoa	9	16,1
Emakumezkoak eta gizonezkoak antzeko kopuruan	31	55,4
Gehiengoa gizonezkoa	10	17,9
Guztiak gizonezkoak	1	1,8
Zehaztu gabe	3	5,4
Guztira	56	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

26.Grafikoa. Partaideen banaketa generoaren arabera

3.10. BEHAR BEREZIAK DITUZTEN PARTAIDEAK

2023ko udan antolatutako jardueretan behar bereziak dituzten partaiderik egon den galdetu zaie eragileei. Bi aspekturen arabera informazioa jasotzea izan da helburua; batetik, Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten haur eta gaztetxoengatik eta, bestetik, mugikortasun murriztua duten partaideena.

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten partaideren bat gutxienez jaso du jardueren heren batek (% 41,1). Kasu guztietan eragileek azpimarratu dute pertsona horientzat begirale berezi bat edo batzuk jarri dituztela eta aktibitateak moldatu direla beharrezko kasu batzuetan. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten partaideren bat egon da erakunde publikoen jarduera guztietan eta baita IGE eta ikastetxeek antolatutakoetan ere. Erakunde pribatuen jardueren gehiengoan ez da ezaugarri horietako partaiderik egon.


Galdetegiren batean antolatzailearen batek eskaera egin dio Gasteizko Udalari Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haur eta nerabeak dituzten kasuan laguntza eta babes gehiago eskatuz.

27.Taula. Hezkuntza premia bereziak dituzten partaideak bai?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	23	41,1
Ez	33	58,9
Guztira	56	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

27.Grafikoa. Hezkuntza premia bereziak dituzten partaideak bai?




Bestalde, mugikortasun murriztua duten partaideak jardueren % 8,9n egon dira eta kasu hauetan ere eragileen aipatu dute laguntzarako begiraleak kontratatu diren eta instalazio edo aktibitateen moldaketa egin dutela beharrezko egoeretan. Mugikortasun behar bereziak dituen partaiderik ez da egon irabazi asmoak dituzten eragileen jardueretan.

28.Taula. Mugikortasun behar bereziak dituzten partaideak bai?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	5	8,9
Ez	51	91,1
Guztira	53	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

28.Grafikoa. Mugikortasun behar bereziak dituzten partaideak bai?



3.11. JARDUERAREN AURREKONTUA ETA DIRU LAGUNTZAK


Jardueren aurrekontuaren inguruan galdetuta, erdiek erantzun dute (% 45,5) 10.000 euro baino gutxiagoko kostua dutela bere ekintzek. Multzo honetan nabarmentzen dira partaide kopuru txikia eta astean ordu gutxikoak diren aktibitateak. Jardueren beste % 16,4k 10.000 eta 25.000 euro arteko aurrekontua du eta 25.000 eta 75.000 arteko jarduerak % 16,4 dira. Opor jarduera garestienak, 100.000 eurotik gorakoak % 9,1 osatzen dute eta partaide asko dituztenak izan ohi dira, baita Arabatik kanpo antolatzen diren kanpalekuak ere.

29.Taula. Jardueraren aurrekontua zenbatekoa den

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
10.000 baino gutxiago	25	45,5
10.000 eta 25.000 artean	9	16,4
25.000 eta 50.000 euro artean	4	7,3
50.000 eta 75.000 euro artean	5	9,1
75.000 eta 100.000 euro artean	0	0,0
100.000 baino gehiago	5	9,1
Zehaztu gabe	7	12,7
Guztira	55	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

29.Grafikoa. Jardueraren aurrekontua




Bestetik, partaideen matrikula edo izen emateek aurrekontuaren ehuneko zenbat finantzatzen duten galdetuta, jardueren ia hamarretik lauk (% 34,5) adierazi dute beren aurrekontu osoa izen emateekin ordaintzen dutela. Multzto honetako eragile guztiak pribatuak dira eta ez dute dirulaguntza publikorik jasotzen. Jardueren beste % 20k bere aurrekontuaren gehiengoa finantzatzen dute matrikula bidez.

30.Taula. Partaideen matrikulak aurrekontuaren zenbatekoa suposatzen duen

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
% 0 - % 24 artean	3	5,5
% 25 - % 49 artean	3	5,5
% 50 - % 74 artean	6	10,9
% 75 - % 99 artean	11	20,0
Osoa % 100	19	34,5
Zehaztu gabe	13	23,6
Guztira	55	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.

30.Grafikoa. Partaideen matrikulak aurrekontuaren zenbatekoa suposatzen duen




Bukatzeko, jardueren hamarretik hiruk dio (% 29,1) bere ekintzak aurrera eramateko dirulaguntzak jasotzen dituela. Gehienek Gasteizko Udalaren laguntza izaten dute, batzuk Arabako Foru Aldundiarena eta Espainiako Gobernuaren *Plan Nacional contra las Drogas* ere aipatu da pare bat kasutan.

Dirulaguntzarik bai?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	16	29,1
Ez	39	70,9
Guztira	55	100,0

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa.
Aztiker, 2023.

30.Grafikoa. Dirulaguntzarik bai?



4. ONDORIOAK

Aurreko ataletan, Vitoria-Gasteizko opor-eskaintzaren ezaugarriak modu orokorrean aztertu dira, aldagaiez aldagai datuak aurkeztuz. Atal honetan, azterketa kualitatiboaren laburpena egiten da, opor-jarduera eskaintzan berdintasunaren ikuspegitik erreferentzialak diren dimentsioei erreparatuz, kokapena, adina, generoa, hizkuntza, aniztasuna eta unibertsalitatea hain zuzen ere. Dimentsio bakoitzeko, datuek agerian uzten duten errealitate nagusia deskribatzen da, eta etorkizunari begira hobekuntzak planteatze aldera, dimentsio bakoitzean somatzen diren beharrak eta balizko lanketak ere aipatzen dira.

Kokapena

Bildutako datuek erakusten digute 2023ko udan antolatu diren jardueren bi heren Gasteizen bertan antolatzen direla. Hirian zehar jarduera horiek erakusten duten distribuzio espazialari dagokionez, azpimarratzekoa da jarduera motak eta eragile antolatzaileak jardueren kokapena baldintzatzen dutela, neurri desberdinetan:

- Udalak antolatutako ekintzak hirian zehar banatzen dira (gizarte etxeetako sareen, ikastetxeen edo udal instalazioen bidez). Beraz, ondoriozta dezakegu kokapenari dagokionez eskaintza publiko erreferentzialak (Udalak eskaintzen dituenak), presentzia orekatu bat daukala hirian zehar.
- Eragile antolatzaileari erreparatu gabe, hizkuntza, aisialdia edo kirola ekintza nagusi duten opor-jarduerak nagusiak dira, eta horiek Gasteizen zehar banatuta identifikatzen ditugu.

Beste aldetik, opor-jardueren distribuzio espazialak erakusten digu eragile pribatuak sakabanatuta daudela hiri osoan zehar, hau da, auzoz auzo eragile ugari daude opor eskaintzari ekarpen bat egiten diotenak. Zentzu honetan, eta aurrera begirako lanketa moduan planteatuta, txosten honekin batera aurkezten den datu basea baliatu daiteke Udaletik eragileekin harremana sortzeko, euren errealitatea ezagutzeko eta lanketa partekatutako planteatzeko.

Adina

Opor-jardueren eskaintza partaideen jaioturtearen arabera aztertzen badugu, desoreka handiak identifikatzen dira. Emaitzen azterketak erakusten duen moduan, jardueren erdia baino gehiago 8 eta 12 urte bitarteko adin tarteko herritarrentzat bideratuta dago. Haur txikien eta nerabeen kasuan, ordea, eskaintza murriztuagoa identifikatzen da. Desoreka horrekin lotuta honako irakurketak atera daitezke:

- Eragile publikoen eskaintza media baino herritar zertxobait gazteagoentzat da, izan ere, jardueren gehiengoa 7 eta 12 urteko haur eta nerabeei begira antolatzen da. 14 urtetik gorakoentzat oso eskaintza txikia dute erakunde publikoek.
- Ikastetxeak eta IGEak eragile antolatzaileen laginaren % 20 osatzen dute, eta zentro gehienak Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako dira. Honek esan nahi du ikastetxeek eta IGEek antolatutako ekintzak soilik edo nagusiki 2011tik hona jaiotako umeentzako izaten direla.
- Aisialdi Taldeekin kontaktatzeko izandako zailtasunak izan direla azpimarratu behar da. Egoera honek gazteentzat bideratutako jardueren kopurua murriztu duela ondoriozta daiteke eta, beraz, ikerketaren emaitzak zertxobait baldintzatu ahal izan ditu. Izan ere, Aisialdi Taldeak ustiaketatik kanpo gelditu dira, eta gazteentzako aisialdi jarduerak antolatu ohi dituzte: udalekuak, ibilaldiak eta abar.
- Gazteei bideratutako ekintzak gutxi izatearen arrazoiei erreparatuta, a priori bi faktore nagusitzen dira. Alde batetik, gazteen kasuan, autonomia handiagoa dute eta adin txikiagoetan izaten duten zaintza beharra murrizten da; beraz, adinean gora joanda opor-jardueren eskaeraren jaitziera baten aurrean egongo ginateke. Beste aldetik, 15 urtetik gorako herritarrentzako eskaintza aztertzen badugu, kirol espezifikoak, hizkuntza eta kanpoko aisialdi ekintzak nagusitzen dira. Testuinguru honetan, eskaintza hori noraino lerrokatzen den gazteen beharrekin aztertu beharko litzateke.

Landu beharrekoak:

- Udako jarduerari dagokienez, 15 urtetik gorako gazteen beharrak eta interesak aztertzea beharrezko ikusten da, gaur egungo eskaintzak horiek asetzen dituen jakiteko eta beharrezkoa izanez gero eskaintza mota birpentsatzeko.
- 5 urtez azpiko haurrentzat eskaintza nahikoa den arakatzea. Gaur egun kasu askotan ikastetxe eta IGEek bideratzen dute eskaintza hori eta aktore hauen beharrak edo jarduerak antolatzeko zailtasunak zein diren aztertzea interesgarria litzateke.

Generoa

Generoak opor-jardueren eskaintza gainean dituen inplikazioak bakarrik partaide errearen datuen bidez aztertu ahal izan da; izan ere, eskaintzari dagokionez, antolatutako opor-jardueretan ez da genero bereizketarik identifikatu. Hala ere, datu errealei erreparatzen badiegu, agerian gelditzen da eskaintza orokorra bada ere, izena-emate prozesuek aurrera egin ahala generoaren araberako desoreka sortzen dela. Desoreka hori azaltzeko bi errealitate nagusi identifikatu azpimarratzen dira:

- Jarduera mota da generoaren arteko desoreka sortzen duen baldintzatzaile nagusietako bat. Horrela, adibide moduan, gizonetzko gehiago egon dira kirol zehatz batzuetan (igeriketa, skatea edo esku pilota besteak beste), eta emakumezkoek presentzia handiagoa izan dute beste kirol batzuetan (aerobika, hondartzako boleibola, hipika, gimnasia, saskibaloia eta atletismoa) edota jarduera artistikoekin lotutako hainbat ekintzetan.
- Partaidetzari dagokionez, datuek erakusten digute generoen arteko desberdintasunak 8 urtetik aurrera nabarmentzen direla. Egoera hori azaltzeko beharrezkoa da adina eta jarduera motaren arteko loturari erreparatzea, hau da, adin bakoitzean eskaintzen den jarduera motak genero banaketa noraino baldintzatzen duen planteatzea. Horri erantzunez, 8 urtetik behera nagusitzen diren jarduerak aztertzen baditugu, "aisialdia" eta "aisialdia+kirola" eremuak aurkitzen ditugu, hau da, jarduera-aniztasun handia duten ekimenak. 8 urtetik aurrera, aldiz, kirol espezifikoek pisua irabazten dute, eta orokorrean esan dezakegu espezializazio maila altuagoa dagoela. Jarduera moten arteko trantsizio honetan somatzen da generoaren arteko bereizketaren arrazoi bat.

Landu beharrekoak:

- Generoaren araberako kuoten ezarpenaren bitartez, izen-emate prozesuetan abiatutako zozketak mekanismo egoki bat izan daitezke, hau da, genero aldetik sortzen diren desorekak neurri batean kontrolatzeko kuota sistema bat.

Hizkuntza eta euskara

Lortu ditugun datuak aztertuta, euskarak presentzia nagusia du jardueren ia heren batean, hau da, jarduera horiek soilik euskaraz eskaintzen dira. Beste aldetik, galdetegia bete duten eragileen % 80,4k (56tik 45ek) euskararen aldeko neurriren bat hartzen duela aipatzen du. Aipatutako neurriak honakoak dira:

- Begiraleek euskara menperatzen dutela bermatzea
- Jarduera euskaraz eskaintzea
- Jarduera euskara eta gaztelaniaz izatea, haurren beharraren arabera
- Txanda batzuk euskaraz soilik izatea
- Jarduera hirueleduna izatea, euskara ere sustatuz
- Euskara erabiltzen saiatzea
- Haur euskaldunen presentziak euskararen erabilera handitzea
- Izen ematea eta administrazioa euskaraz egiteko aukera bermatzea
- Material eta jarduera guztiak euskaraz prestatzea

Irakurketa orokorra eginez, elebidunak diren jardueren kasuan, ondoriozta daiteke euskararen aldeko neurri argiak hartzea baino, gehiago gelditzen direla euskararen erabilerarako "aukera ematearen" eta "sustapenaren" dimentsioan. Hortaz, euskararen aldeko neurria erabat boluntarista da, eta horrela, adibidez, neurri hauen efikazia maila orokorrean begiraleen gaitasunaren, nahiaren edo borondatearen arabera oso baldintzatuta dago. Hau da, kasu askotan eragileak begiraleen esku uzten du euskarak jardueran izango duen presentzia eta ez du inolako jarraipenik egiten.

Azpimarratzekoa da eragile motaren arabera euskarak duen presentzia asko aldatzen dela. Izan ere, erakunde publikoek edo IGEek antolatzen dituzten jardueren hiru laurdena euskara hutsez eskaintzen da eta gainera guztiek hartzen dituzte euskara sustatzeko neurriak. Beste muturrean, eragile eta enpresa pribatuek antolatutako opor-jardueren % 18 inguru da euskara hutsean.

Landu beharrekoak:

- Kontratatzen diren begiraleek (edota azpikontrataturako enpresa antolatzaileak) euskara gaitasuna dutela ziurtatzea. Begirale tituluaz gain, euskara titulua ere eskatzearen aukera aztertzea.
- Haur eta nerabeentzat antolatzen diren jardueretan hizkuntzaren erabilera neurtzeko behaketak egitea.

Behar bereziak haur eta nerabeak

Behar bereziak dituzten partaideen presentzia zuzenean eragileei galdetu zaie. Emaizak erreparatuta, jardueren hamarretik lauk baino gehiagok (56tik 23) adierazi du HPB dituzten erabiltzaileak jaso dituztela, eta 5ek mugikortasun murriztua duten partaideak jaso dituztela. Errealitate horietan aurkitzen diren eragileek hiru dimentsio desberdineko neurriak aipatu dituzte:

- Jardueren egitarauan egokitzapenak egitea.
- Begirale gehiagoren kontratazioa burutzea.
- HPBren inguruan formazio espezifikoak duten begiraleen kontratazioa.
- Mugikortasun murriztuaren kasuan, instalazioen egokitzapena eta aparatu espezifikoaren erabilpena.

Bi kasu zehatzetan, Udalaren baliabideen beharra aipatu da HPB duten erabiltzaileen presentziara egokitzeko. Beraz, azpimarratu dezakegu honetan sakontzeko beharra dagoela, hau da, HPB dituzten umeekin lan egiten duten eragileak ezagutu eta Udaletik errealitate hori nola landu aztertu.

Azkenik, bereziki desgaitasuna duten pertsonen begirako kirol kanpus bat identifikatu da, Zuzenak Fundazioak antolatuta. Kasu honetan, desgaitasuna duten pertsonak erabiltzaile nagusiak dira, eta horientzako egin beharreko egokitzapena integrala da.

Landu beharrekoak:

- Mugikortasun murriztua duten erabiltzaileak dituzten eragileekin koordinazioan lan egin, egokitzapen neurriak dagokienez lankidetzan lan egiteko, edo laguntza espezifikoak emateko.
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten umeak jasotzen dituzten eragileekin harreman zuzena egin euren beharrak edo zailtasunak ezagutzeko.

Sarbidea

Atal honetan Gasteizko opor-jardueren eskaintzaren ezaugarri nagusiak sarbidearen ikuspegitik aztertzen dira. Horretarako, Gasteizko hurrek eta nerabeek opor-jarduera batean parte hartu ala ez baldintzatu dezaketen hainbat aldagai aztertzen ditugu: jardueren prezioa, izena-emate prozesua eta familien kontziliazioa erraztu dezaketen faktoreak (jantokia, zaintza zerbitzuak eta egutegia).

Segidan, aipatutako aldagaiei erreparatuz, opor-jardueretara sarbidearekin lotura duten irakurketa nagusiak aurkezten dira:

- Nahiz eta ordu kopurua prezioaren baldintzazaile nagusia izan, eragile antolatzailearen tipologiaren arabera ezberdintasun handiak antzeman daitezke jardueraren prezioan, erakunde publikoek eta IGEek antolatutakoa eremu pribatua baino merkeagoa izanda.
- Partaide askoko ekintza gehienek izen emate kopuru altua izan dute eta plaza kopuru erreala ez da iritsi eskaera hori asetzera. Kasu batzuetan plaza bakoitzeko hogeitaz izen ematera iritsi da desoreka. Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia edota Kutxabankeek antolatuko hainbat jarduera sar daitezke zerrenda honetan.
- Opor-jardueren ia erdiek eskaintzen zituzten plazak baino eskaera kopuru altuagoa jaso dute. Jarduera hauetako askotan zozketaz hautatzen da partaideen sarbidea, eta zozketa horren emaitzak asko baldintzatu ohi du udako opor jardueren antolaketa. Izan ere, eskaera handiko jardueretan izena eman eta plaza tokatzen ez zaien haur eta nerabeen gurasoek beste aukera alternatiboak topatu behar izaten dituzte. Alternatiba horiek klub edo akademia pribatuen eremuan topatzen dira. Baiezatu daiteke, eragile publikoek eskaintzen dituzten plaza kopuruak, neurri batean, baldintzatzen dituela eragile pribatuen jardueretako izen emateak. Hau da, eragile publikoek zenbat eta plaza gehiago eskaini, orduan eta partaide gutxiago izango dituzte klub edo akademia pribatuek, eta alderantziz.
- Opor-jardueren bat eskaintzen duten eragile askok urtean zehar eskolaz-kanpoko jarduerak ere eskaintzen dituzte eta, ondorioz, kasu askotan ikasturtean zehar antolatutako ekintzen eta opor-jardueren partaideak berdinak izaten dira. Beraz, opor-jarduera gehienak irekiak diren arren, komeni da arakatzea urteko partaideen presentziak noraino baldintzatzen duen kanpoko partaideen izen-ematea.
- Jardueren ordutegia kontziliazioaren ikuspegitik aztertuta, ondoriozta dezakegu neurri handi batean eskaintzak zaintza eta kontziliazio beharrei erantzuten diela. Jardueren % 70 astean 20 orduetik gorakoa da, hau da, jarduera horietan partaideak gutxienez egunean 4 ordu egoten dira. Gainera, ordu kopuru tarte horietan batez ere 2011. urtetik aurrera jaiotako umeentzako jarduerak aurkitzen dira.
- Zaintza zerbitzua, opor-jardueren heren batek eskaintzen du. Horien artean gutxi batzuek prezioaren barruan eskaintzen dute, eta ia denak eragile pribatuen ekintzetan eta kirol jarduerari lotutako fundazioetan izan ohi dira. Zaintza zerbitzuen gehiengoak ordainpekoa da eta kasu askotan IGE eta ikastetxeek antolatzen dituzte.
- Egutegiari dagokionez, jarduera gehienak ekaina amaieran hasten dira (ikasturtearen amaierarekin batera) eta uztailean zehar garatzen dira. Abuztuan, ordea, aktibo dagoen eskaintza nabarmen murrizten da. Abuztuan egiten diren aktibitateen artean ez dago IGE edota itunpeko ikastetxeek antolatutako jarduerarik. Izan ere, soilik erakunde publikoek antolatutako ekintza batzuk eta eragile edo enpresa pribatuen batzuk egoten dira martxan abuztuan.

Landu beharrekoak:

- Zaintza zerbitzua indartzearen egokitasuna aztertu.
- Abuztuan opor-jarduerak antolatzearen beharra zenbatekoa den jakitea interesgarria izango litzateke, benetan gurasoen eta haurren artean dagoen eskaera ezagutzeko eta behar den kasuetan jarduera eskaintza birpentsatzeko.
- Partaideei dagokienez, opor-jardueren programa eta ikasturtean zehar eragile berdinak eskainitako jarduerak noraino lotuta dauden aztertu.
- Erakunde publikoen aldetik opor-jardueren eskaintza handitzeko dauden aukerak aztertzea. Azken finean, erakunde publikoek antolatutako jarduerak dute eskaera handiena eta kasu askotan gehiago dira plazarik gabe geratzen diren haur eta nerabeak. Argi ondoriozta daiteke eskaintzen den plaza kopurua handituz gero partaide kopuruak gora egingo lukeela eta, aldiz, eragile pribatuen partaide kopuruak behera.
- Erakunde publikoek antolatzen dituzten jarduerak genero desoreka txikiagoa dute, euskararen aldeko neurri gehiago hartzen dituzte eta ekonomikoki sarbide errazagoa dute. Hortaz, garrantzitsua da aztertzea erakunde publikoen jardueretan plaza kopurua handitzeak zein eragin izango lituzkeen, zailtasunak eta indarguneak arakatzuz.

ERANSKINA: Azken aipamenak

Bestelako aipamenak eragileen aldetik

	Kopurua
- Adin tarte honetarako (12 eta 15 urte artean) eskaintza eskaria baino askoz baxuagoa da. Udaleku gehiago behar dira, Gasteiztik kanpo, gazteentzat. Adin honetan halako aukeraz gozatu ahal izatea funtsezkoa da, osasun mental eta fisikorako laguntzen du (Gasteizko Udalak antolatutako Gazte Uztaila).	1
- Adin tarte honetarako (13 eta 17 urte artean) eskaintza eskaria baino askoz baxuagoa da. Udaleku gehiago behar dira, Gasteiztik kanpo, gazteentzat. Adin honetan halako aukeraz gozatu ahal izatea funtsezkoa da, osasun mental eta fisikorako laguntzen du (Gasteizko Udalak antolatutako kanpamenduak).	1
- Como continuación a la orientación y misión educativa CEU Virgen Niña, con el Summer Camp continuamos formando personas en base a los principios en los que se basa el humanismo cristiano, destacando la dignidad humana, libertad y solidaridad.	1
- El transporte hasta Ataria (Green Summer Camp) corre a cargo de las familias. No veo contemplado en el formulario el tiempo de preparación de las mismas: coordinación, diseño de actividades, comunicación con las familias, compras...	1
- Eskaintza eskasa da (Gasteizko Udalaren Udako Txokokluba).	1
- Eskaintza urria da horrelako jardueren eskari handiarentzat (Gasteizko Udalaren Ludonatura)	1
- Eskaintza urria da horrelako jardueren eskari handiarentzat (Gasteizko Udalaren Udako Ludotekak)	1
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten umeentzako diru laguntza argiak ematea, merezi duten kalitatezko arreta bermatu ahal izateko.	1
- Necesitamos un precio de las instalaciones más ajustado. Necesitamos poder hacer reservas por días, por si haya algún día que no haya asistencia suficiente. Ahora mismo el pago es por la duración del campus completo	1
- No conseguimos llegar a público desconocido y casi siempre acaban viniendo al campus participantes que de alguna forma, ya conocen el deporte de antemano (Street Hockey)	1
- Poder acercar estas actividades a los colegios y centros cívicos de la ciudad (colonias de fotografía)	1
- Revisión del presupuesto otorgado en el pliego desde el año 2022 (Folklore Eskola)	1
- Se ha comentado en el cuestionario algún tema relacionado con las subvenciones. Nos gustaría recibir información al respecto (Academia Britons)	1
- Tenemos solicitado a través del colegio una serie de actuaciones en el polideportivo de Divino Maestro necesarias para incrementar la seguridad y funcionalidad del recinto. Hasta hoy no han sido atendidas. Si es preciso les remitimos el escrito con necesidades que ya se a facilitado al Ayuntamiento (C.B. Araba Basket)	1
- Toda difusión de la actividad es bienvenida para poder contar con mayor participación. Este año hemos tenido asistentes de Vitoria- Gasteiz. Esperamos que su número se incremente el próximo año.	1
Guztira	15

Iturria: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.: Gasteiz udalerriko opor jardueren eskaintzari buruzko azterlan diagnostikoa. Aztiker, 2023.